

Talence'n 9/1/72

Agur aspaldiko D. Jose Maria:

Hemen gaude berriz beste urte berri bat haurrean dugula; ni, sekula baino lan gaiago egiteko asmo eta gogoakin eta zu, esagutzen zaitudanez zer esanik ez. Zer moduz zabitze eta zabitze?.

Julian Elortzak idatzi dit Paris'era edo; joateko bere asmoak azalduaz. Asmo hau oso egokia iduritzen zait bainan ez dakit zer egin duen. nik hemendik ezin lagundu, Paris'en izan banintza behar bada.

Alderantziz, Mundraueko mutillak Bordale'ko Unibersidade Tenikoan ikasi nahi ba dute (Comande numérique, Physique, Électronique) kursillo motzak edo luziak eginaz, ba ditut horretarako giltza batzuk. Hantegi inportante baten ari naiz eta hemengo I.U.T.'kin (Institut Universitaire Technique) baditut harremanak. Niretzako errexa litzake lehendabiziko kontatoak ematea edo ta programak bialtzea ta abar. Badakit Donostiako batzuk horretara etorriak izan direla; I.U.T.'koak nahi dute zuen eskualdekoekin harremanetan hastea. Zuek ikus.

Joandan astean mendian izan nintzan eta etxeruta etortetarakoan, zure adiskide Agirregomezkorta ikusi nuen Bidarraiko bere etxean. Zuretzako goraintzia ta agur asko. Hori ez da legorrean ittoko, ta bustian ere nekez.

Horrela ba gauzak, zure berrien zai, eta ekintza onetan Urte Berri hau haundia izango dan itxaropenakin, agur ta gorantzi kartsuenak eskeintzen dizut.

